

AURKIBIDEA

1.- JARDUTEKO ARAU OROKORRAK

2.- HONDAKINEN KUDEAKETA

3.- ISURKETEN KUDEAKETA

3.1.- PORTUKO JABARI PUBLIKOKO URETARA EGITEN DIREN
ISURKETAK

3.2.- BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN URETAKO
KOLEKTORERA EGITEN DIREN ISURKETAK

4.- ATMOSFERARA EGITEN DIREN EMISIOEN KUDEAKETA

5.- LURZORUAREN KUTSADURAREN KUDEAKETA

5.1.- KUTSAGARRIAK IZAN LITEZKEEN JARDUERAK

5.2.- LURZORUA EZ KUTSATZEKO NEURRIAK

6.- ZARATEN KUDEAKETA

7.- LARRIALDI-PLANAK

NORK EGINA: Segurtasuneko eta Ingurumeneko buruak	NORK ONARTUA: Prebentzioko eta Ingurumeneko buruak
--	---

1.- JARDUTEKO ARAU OROKORRAK

Bilboko Portuaren zerbitzu-eremuan lan egiten duten enpresek indarrean dagoen ingurumen-araudia bete behar dute, eta, hala badagokio, bete beharreko Portu Agintaritzaren ingurumen-baldintzak ere bai.

Bilboko Portuaren Agintaritzak emandako emakida administratibo, baimen, kontratu, lizentzia eta abarren bidez Bilboko Portuaren zerbitzu-eremuan zerbitzuak ematen dituzten enpresa guztiek bete behar dute jarraibide hori.

Enpresa kontratista nagusiek arduratu behar dute langile autonomoi eta azpikontrataturako beste enpresa batzuei dagozkien baldintzak betetzeaz.

Bilboko Portuko Agintaritzak geldiaraz ditzake araudia edo dokumentu honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten lanak edo jarduerak, eta egokitzen diren neurri osagarriak hartu.

Baldintza hauek betetzeak ez ditu salbuesten enpresak ingurune fisikoari eragin liezazkiekeen kalteekiko erantzukizunetik edo delitu ekologikoak egiteagatiko zigor-erantzukizunetik.

Enpresek erantzukizun zibileko polizetan sartu behar dituzte ingurumena kutsatzeko jarduerak dituen arriskuak.

2.- HONDAKINEN KUDEAKETA

Hondakinen ekoizleak jaso, sailkatu, biltegiratu eta entregatu behar dizkio hondakinak kudeatzaile baimendu bati.

Hondakinen ekoizleak Portuko Agintaritzaren eskura eduki behar du hondakinen kudeaketaren ziurtagiria.

Portu-zerbitzuen emakiden eta baimenen titularrek hondakinen kudeaketaren txosten bat entregatu behar dio Portuko Agintaritzari, hala eskatzen bazaio.

Debekatuta dago hondakinak botatzea —edonolakoak direla ere— baimenik gabe itsasora edo Portuaren saneamendu- edo euri-uren sareetara edo zerbitzu-eremuan uztea.

3.- ISURKETEN KUDEAKETA

Erabat debekatuta dago hondakin arriskutsuak (olioak, koipeak, disolbatzaileak, pinturak, etab.) saneamendu-sarera botatzea (euri-uren sarea barne).

Portuko estolda-zuloetatik urrun eduki behar da ustekabe isurtzeko, jarioak izateko edo gainezka egiteko arriskua duten produktu arriskutsuen gordailu oro.

Enpresa baten jardueraren ondorioz produktu arriskutsuak ustekabean isurtzen badira, enpresak xurgatze-baliabideak izan behar ditu produktua jasotzeko eta ondoren barrutia ebakutzeko.

Bere baliabideekin geldiarazi ezin badu isurketa enpresak, Bilboko Portuko Agintaritzaren Larrialdietarako Kontrol Zentroarekin harremanetan jarri behar du. Dena den, isurketa larriren bat izaten bada, Larrialdietarako Kontrol Zentroari jakinarazi behar dio horren berri.

Inoiz ez da garbitu behar kaia presiopeko ura jaurtiz, ur-xaflara hondakinik ez isurtzeko drainatze-sistemaren bidez edo kaiaren ertzetik bertatik.

Ekorketa bidez baino ezin dira garbitu kaiak, ekorketa-makinak erabiliz, eskuz ekortuz edo pala mekanikoak arrastatuz.

Salbuespen gisa, portuko jarduerarako ezinbestekoa bada (adibidez, elikadurarako ontziratu gabeko produktuak jarri behar badira kaian), presiopeko ura (mahuka) erabil daiteke, emakidadunak eragiketen buruaren baimena badu. Salbuespenezko kasu horietan, ahalik eta ondoena ekortu behar da kaia aldez aurretik.

3.1.- PORTUKO JABARI PUBLIKOKO URETARA EGITEN DIREN ISURKETAK

Emakidadunen titularrek portuko itsas jabari publikoko uretan hondakin-urak (sanitarioak eta/edo industrialak) edo azaleko isurketa-urak isurtzeko, lurretik itsasora isurketak egiteko dagokion baimena eskatu behar diote Uraren Euskal Agentziari, eta baimen horretan eskatzen diren baldintzak bete.

Isurketaren egileak baimenean ezarritako laginketak eta uren kalitatearen analisiak egin behar ditu, eta ezohiko emaitzaren bat bada, Bilboko Portuko Agintaritzaren Prebentzio eta Ingurumen Sailari jakinarazi eta justifikatu, eta eskura eduki azterketen emaitzak, inork eskatzea gertatuta ere.

Etorkizunean emakida-tokitik hurbil saneamendu-sare bat balego, Portuko Agintaritzak eska diezaioke emakidadunari sare horretara konektatzeko, bere kontura.

Bilboko Portuko Agintaritzaren ur-sarearen bidezko isurketak

Portuko Agintaritzaren urak jasotzeko sarearen bidez egiten bada isurketa, aurreko baldintzak betetzeaz gain, konektatzeko baimen bat eskatu behar zaio Bilboko Portuko Agintaritzako Eraikuntza Saileko buruari, eta datu hauek eman:

- Saneamenduaren planoak, hargunearen eta kontrol-kutxatilaren kokalekua adierazten dituenak
- Isuri beharreko uren jatorria
- Arazketa-instalazioen proiektua
- Eguneroko batez besteko emari zenbatetsia eta isurketaren urteko bolumena

Isurketaren kutsaduraren parametroek ez dituzte gainditu behar Uraren Euskal Agentziak baimenean ezarritako mugak, eta hori egiaztatzen duen agiriaren? kopia bidali behar zaio BParen Prebentzio eta Ingurumen Sailari.

3.2.- BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN KOLEKTORERA EGITEN DIREN ISURKETAK

Hondakin-urak (sanitarioak eta/edo industrialak) Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kolektorera isuri nahi dituzten emakiden titularrek dagokion baimena eskatu behar diote partzuergo horri, eta, kolektorera konektatu ondoren, “Kolektorera konektatzeko adierazpena/baimena” eskatu eta gorde.

4.- ATMOSFERARA EGITEN DIREN EMISIOEN KUDEAKETA

Indarrean dagoen legerian ezarritako “Atmosfera kutsa lezaketen jardueren katalogoa”n sartzen diren jardueren emakidadunek dagokien baimena izan behar dute, edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoko organo eskudunari jakinarazi behar diote aldez aurretik, lege horretan ezarritako epeen barruan. Aire libreko ontziratutako gabeko produktu solidoak manipulatzeko eta biltegitatzeko emakidek baimentzeko/jakinarazteko prozesuari dagozkion neurri teknikoak hartu behar dituzte, BParen neurketa-estazioetan erregistratutako partikulen mailak hobetzeko.

Ontziratutako gabeko produktu solidoak manipulatzeko, orobat, neurri hauek hartu behar dira kontuan:

- Koilarak ondo ixten diren begiratu.
- Koilarak gordailutik ahalik eta hurbilena irekitzen diren begiratu.
- Eguraldi txarrarekin, palarekin egiten den manipulazioa moteldu egin behar da, eta merkantzia hezetu, ureztatu, edo, bestela, plastiko edo olanekin estali.

Atmosferara emisioak egiteko arriskua duen instalazio batean autokontrolak egin behar direnean, legeak edo Bilboko Portuko Agintaritzak hala aginduta, Portuko Agintaritzaren esku egon behar dute autokontrol horiek.

Erabat debekatuta dago hondakinak edo materialak erretzea.

5.- LURZORUAREN KUTSADURAREN KUDEAKETA

5.1.- KUTSAGARRIAK IZAN LITEZKEEN JARDUERAK

Arriskutsua izan litekeen jardueraren bat egiten duten emakiden titularrek, indarrean dagoen legearen arabera, Bilboko Portuko Agintaritzaren Prebentzio eta Ingurumen Sailari bidali behar dizkiote legeak ezarritako obligazioen ondorioz autonomia-erkidegoko ingurumen-organoari igortzen dizkioten txosten eta jakinarazpen guztien kopiak.

Halaber, emakidaren epea bukatzen denean, Portuko Agintaritzaren esku jarri eta hari aurkeztu behar zaio autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak emandako lurzorukalitatearen adierazpena. Lurzorua kutsatuzat jotzen bada, emakidadunak dagozkion lehengoratzeneurriak hartu behar ditu, eta lurzorua lehengoratu dela egiaztatzeko, lurzorua kutsatuta egoteko izendapena izateari utzi diola adierazten duen ebazpena, autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak emana, aurkeztu behar dio Portuko Agintaritzari.

5.2.- LURZORUA EZ KUTSATZEKO NEURRIAK

Lurzorua ez kutsatzeko, neurri prebentibo hauek hartu behar dira:

- Ibilgailuak garbitzeko eta haiei olioaldatzeko lanak horretarako egokitutako eta baimendutako instalazioetan bakarrik egin behar dira.
- Inpermeabilizatu egin behar dira substantzia likido arriskutsuak biltegitzeko eremuak.

- Ustekabeko isurketak, gainezka egiteak edo jarioak geldiarazteko gai diren ontziak jarri behar dira.
- Biltegitratutako substantzia arriskutsu guztiek segurtasun-fitxa izan behar dute.
- Debekatuta dago isurketak geldiarazteko sistemarik ez duten lurzoruak kutsa litzaketan jarduerak egitea.

6.- ZARATEN KUDEAKETA

Estatuko Administrazio Orokorrek estatuaren eskumeneko azpiegituretarako eremu-plan espezifikoetan ezarritako akustika-kalitatearen helburuak bete behar dira, salbu eremu urbanizatuertarako zortasun akustikoko eremuak zedarritzen baditu administrazio horrek.

Horrez gain, zaratak gutxitzeko arau orokor hauek hartu behar dira kontuan:

- Zaraten emisio atmosferikoei buruz indarrean dagoen araudia betetzen duten ibilgailuak, itsasontziak eta makinak erabili behar dira.
- Gaueko ordutegian, txatarraren edo antzeko produktuen deskargak egiteko, gordailuaren pareraino igo behar da koilara.

7.- LARRIALDI-PLANAK

Bilboko Portuaren Autobabeserako Planari egokitutako autobabeserako plan bat izan behar dute emakida guztiek, eta haren edukiak bat etorri behar du aplikatu beharreko legediarekin. BPAREN Prebentzio eta Ingurumen Sailera bidali behar da plan hori, bai eta haren eguneraketak eta aldaketa garrantzitsuak ere.

Substantzia arriskutsuak tartean diren istripu larrien arriskuak kontrolatzeari buruzko legediak eragiten dien emakidadunek, halaber, arriskuen analisia eta hari dagozkion eguneratzeak bidali behar dituzte.

Ustekabeko itsasoaren kutsadurari buruzko legediak eragiten dien emakidadunek Barneko Itsas Plana onartu izanaren ziurtagiria izan behar dute. Itsas Kapitaintzak igortzen du



**EMAKIDADUNEI ESKATU
BEHARREKO INGURUMEN-
BALDINTZEN PROTOKOLOA**

DGI 02.02/10

Berrikuspen-zk.: 4

Data: 2020ko urria

Or.: 8/8

onarpen hori, BPAk txosten loteslea bidali ondoren.